


Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1996ko ekainak 28

Usurbil, 1. Zenbakia



...SAN JUANAK
JOAN DIRA,
SANTIXABELAK
BADATUZ...



JAIOTZAK

- Maria Aginaga Peña (96-06-03) (Txokoalde)
- Xuban Illarramendi Jauregiberri (96-06-04) (Txokoalde)

- Aritz Pérez Jiménez (96-05-25) (Etxe-aldia)
- Ane Bengoetxea Artetxe (96-05-29) (Kaleberri)



HILDAKOAK

- Manuel Estévez Suárez (96-05-24) 57 urte (Santuenea)
- Eladio Sánchez Hernández (96-06-03) 92 urte (Kalezar)
- Katalina Treku Zubiri (96-06-22)



EZKONTZAK

- Migel Angel Lazkano Alkain (Kaleberri) eta Inmaculada de Miguel Echeburua (Tolosa) (96-05-11)
- Antonio Bravo Barrera (Etxe-aldia) eta Maria Teresa Ezquiroz Ontoria (Donostia) (96-05-18)
- Jose Migel Aburuza Uribe (Txikierdi auzoa) eta Miren Bakarne Segurola Azkonobieta (Kaleberri) (96-05-18)
- Ana Soroa Udabe (Kalezar auzoa) eta Koldo Arratibel Sukia (Donostia) (96-06-01)



• UDALA	34 19 51	• ARRATE EGOITZA	36 63 40
• UDALTZAINGOA	36 11 12	• EUSKO TREN INFORMAZIOA - -	47 09 76
• ANBULATEGIA	36 20 13	• NOAUA! ALDIZKARIA	36 03 21
• UDARREGI IKASTOLA	36 12 16	• SOS DEIAK	088
• AGERIALDE IKASTETXEA	36 38 85	• LARRIALDIAK	46 11 11
• OIARDO KIROLDEGIA	37 24 98	• SUHILTAILEAK	088
• ZUMARTE MUSIKA ESKOLA	37 15 94	• HIESari buruzko informazioa	900 111 000
• ETUMETA AEK EUSKALTEGIA	37 20 01	• Droga-menpekotasunari buruzko informazioa	36 03 21
• TAXI GELTOKIA	36 21 78	• GIPUZKOAKO OSPITALEA	900 16 15 15
• D.Y.A.	46 46 22	• ARANTZAZUKO GURE AMA OSPITALEA	45 40 00
• GURUTZE GORRIA	27 22 22	• GURUTZE GORRIA OSPITALEA	44 70 00
• GURE- PAKEA EGOITZA	37 32 28	• OSAKIDETZA DONOSTIA	21 46 00
• GURE-ELKARTEA EGOITZA	37 17 51		27 79 03



USURBILGO UDALA

Aldizkari honek
Usurbilgo Udalaren
laguntza jaso du



Noaui!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaui! Kultur Elkarte. Kale Nagusia, 27 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa) Tlf. (943) 36 03 21.

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari Matxain, Nere Amenabar, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain

Administrazioa: Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea.

Erredakzio Kontseilua: Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Mertxe Olaizola.

Maketazioa: Susana Martin.

Argazkia: Joxe Antonio Labaien, Juan Luis Izeta.

Informatika: Pili Lizaso.

Banaketa: Unai Lataillade, Iker Muguruza. **Tirada:** 2.000 ale.

Lege-Gordailua: eskatua

ISSN: eskatua

Inprimategia: Antza, Industrialdea 1 - 2, 20.160 Lasarte-Oria.

Noaui! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esamen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

- 2. **Gazi-Goza-Geza** (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak)
- 4. **Zer irizten?** (Andoni Sagarna)
- Ika-mika** (gutunak)
- 5. **Berriketan** (Arantxa Goenaga)
- Txirrikitutik** (argazki albistea)
- 6-7. **Kalejiran** (auzoak)
- 8-9. **Herorrek esan** (inkesta)
- 10-15. **Santixabelak**
- 16. **Denboraren lepotarra** (kontu zaharrak)
- 17. **Izerdi patsetan** (kirolak)
- 18. **Porrusalda** (albiste laburrak)
- 19. **Herriko taldeak**
- 20-21. **Agenda** (majerako kondarrak)
- 22. **Lehiaketa**
- Komikia**



1988ko Santixabelak.

argazkia: Labaien

Lauurak
Liburuetan

STANLEY LIXON BILAK
O. N. D. O. PASAM

TABERNA & VERRAIT A PUEBLO

ARUIZE 1A 2
USURBIL GIPUZKOA

Baruko arropak eta
etxeke arropak

Aitzeta kalea
telefonoa: 36 17 87

KALEZAR
TELEFONOA: 37 29 52

Zer irizten?

Andoni Sagarna

Noaua! K. E. Lehendakaria



Noaua! Eamango aue!

Munduan edozein lekutan zabiltzala horrelakorik entzuten baduzu, badakizu inguruan usurbildarren bat baduzula. Horrexegatik jarri diogu aldizkari honi NOAUA! izena. Usurbildarron agur hau izan dadila hamabostean behin, luza-ro, gure etxeetara aldizkariarekin batera dato-

rren eupada. Izan ere esatera horrek duen erronka punttuak ere iragartzen baitugu aldizkaria zintzo eta hutsik egin gabe, mamiz beteta eta atsegin, hamabostean behin, kaleratzeak dakarkigun desafioa. Ez gainera argitaratzeko, harpidedunak eta iragarkiak jarriko dituztenak bilatzeko, erakundeetatik sosak ekartzeko eta abarretako eginkizun eskergak bizkar gainean hartu dituen gaztetalde suharrarentzat bakarrik, baita Usurbilgo elkarte, irakurle, harpidedun, lankide eta herritar guztientzat ere. Badakigu ez dela hori dena ahuntzaren gauerdiko eztula, baina badakigu halaber Usurbilen badela gatza eta piperra horretarako eta gehiagotarako ere. Inolako zalantzarik gabe lortuko dugu.

Eutsi goiari!



Usurbilko ala Usurbilgo Sagardo Eguna?

Lehenbizi zorionak Noaua! Aldizkaria martxan jartzeko lanean ibili zareten eta zabiltzaten guztioi. Zorionak eta eskerrik asko, ez duzue genio makala alajainkoa.

Herritarrok ere, nahi dugunaz idazteko gure txokoa izango omen dugu. Hala esan zidan behintzat, aldizkarian burubelarri dabilen gazteetako batek aurrekoan, idaztera animatzen ninduen bitartean. Egia esan, lotsagabe xamarra ere iruditu zitzaidan gazte haren ausardia. Baina tira, gaztea berez da ausarta, eta ausardiak berekin dakar lotsa alde batera uztea. Hala ere, enbidoari eutsi eta eskainitako aukera

ez alferrik galtzea erabaki dut.

Hilabete pasa da aurtengo Sagardo Eguna ospatu genuela, hamabosgarrena oker ez banago. Aurtengoa ere, aurrekoa bezain arrakastatsua suertatu zaigu. Antolatzaileak, beste behin, zoriondu beharrean gaude. Guztia primeran atera zen eta armonia ederrean igaro zen eguna.

Badut hala ere antolatzaileei egin beharreko ohar txiki bat. Aurtengoan ere, urteko irudiarekin grabatuta saltzen dituzuen basoetan "USURBILKO SAGARDO EGUNA" jartzen zuen. Aldiz, Udalak bidaltzen dituen ohar eta eskutitzetan esate baterako, USURBILGO UDALA jarri ohi du. Ni ez naiz

oso jakintsua, baina begibistakoa da bietako bat gaizki dagoela. Honen inguruan galdetzen aritu naiz eta Euskaltzaindiak "USURBILGO" jartzea erabakita daukala esan didate. Hala balitz, basoetan ere "USURBILGO SAGARDO EGUNA" jarri beharko litzateke ene iritzian.

Besterik ez, ondo izan eta segi aurrera.

Joxe (Kaleberri)

Edonork edozertaz idatz dezake; gutunak gehienez 12 lerrokoak. Helbidea: Kale Nagusia, 27. Tel. 36 03 21. Gutunak ezizenez sina daitetzeke, baina izen-deiturak eta ENAren zenbakia beharrezkoak dira.

Elexpe
SOLARIUN
ileapaindegia
Olarro ndo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37.04.62

USURBIL
OPTIKA

Festa Zoriontsuak

ORBELD
MARKEL CIA IZOLA
"ZUREK N JA
HAUTAN E RO
JATORREN A
ASEGURATUR KI"

Irazu kalea, 9-11. 20170 Usurbil
Tlf. eta Faxes: 37 02 69(Gipuzkoa)

Arizeta, 1 Tlf:(943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

ARANTXA GOENAGA Olarrikoa Esnezale-ohia



Justu-justu. Askotan gogoratzen naiz, eta pena handia ematen dit.

• **Zure bizitza esne banaketari lotuta egon da, orduan?**

Bai, egun guztia esnearekin pasatzen nuen. Gora eta behera esnearekin!

• **Baina gustora.**

Bai, lan polita da: jendearekin hitz egin, herriko kontuen berri izan...

• **Noiz hasi zinen esnea banatzen?**

Bederatzi urterekin hasi eta orain dela hiru urterarte.

• **Zer ordutan jaikitzen zinen?**

Goizeko seietan, esneak "letxeroari" eman, erosketak egin, etxera joan, lanak egin, eta bederatzietarako kalezarko mojetara.

• **Nola etortzen zinen baserrietik?**

Hasieran astoarekin, gero behorra, ondoren trakto-rea, gero furgoneta eta orain kotxez.

• **Xelebrekeriaren bat?**

Neguan, ilun-ilun zegoenean, astoaren gainean jartzen nintzen farola eta guzti. "Earki natxien" esaten nion neure buruari asto gaixoa kargatuta eta ni bere gainean.

• **Zein animalia esnea saltzen zenuen?**

Aurren-aurrena behiarena. Eta gero, hogeita bost urte inguru nituenean ardiarena.

• **Nork jezten zituen behiak eta ardiak?**

Normalean aitak eta anaiak. Baina anaia soldaduskarekin egon zenean, nik laguntzen nion aitari.

• **Orain etsitzen al duzu esnerik saldu gabe?**

• **Piropoak ere botako zizkizuten...**

Beno, bai. "La lechera más guapa de Usurbil", "Qué guapa estás", eta horrelakoak.

• **Esnez egindako zein postre duzu gogokoen?**

Esnez egindako edozein, baina gaileta eta horrelakorik ez eman niri.

• **Esnea, baserrikoa ala gaingabetua?**

Baserrikoa, beste hori hartzea baino hobea da kani-lako ura.

• **Bizitzeko, baserria ala kalea?**

Baserria, lasaiagoa da.

• **Parrandazalea al zara?**

Bai ni beti. Ni "juergista numero uno" izan naiz. Inguruko festa guztietan izaten nintzen.

• **Eta astelehenik bai hurrengo goizean?**

Ez, ez, jaikitzeke ez dut inoiz arazorik izan, eta esnatzeke esnagailu beharrik ere ez.

AMIAMOKOAK USURBILEN.

Aspaldiko partez, aurreko maiatzaren 29an, arratsalde aldera zikoina bikote dotorea azaldu zitzaigun kanpandorrea. Gaupasa egin eta hurrengo goizean, beren turismo biran norantz jarraitu ote zuten?



organaketa - joxean



ONDO PASA JAIAKI
Basoak eta setigrafia
TF 47 34 88



ONDO PASA
SANTIXABE JAKI
KALE MAGUSTA 2
TF 364058



FESTA
ZORIONTSUAK
PASA

Plaza Nagusia, 11
TF 47 47 47
TF 47 37
LABORUS



TXOKOALDE



**Iñaki
Labaka**

Azken aldian gure auzoan "soziedadea" da berriketarako gaia. 1955ean, ordurarte Donostiako Errandonea jaunaren garajea zena, Erroizpe Elkartea bihurtu zen. Gaur arte jabearekin harremana normal samarra izan da, baina azken aldi honetan beste traza bat hartu du: iaz errenta itxuragabe igo zuen eta etxea saltzeko prest agertu zen.

Elkarteko zuzendaritzak, ohi kanpoko bilkuran, onartu ezintzat jo zituen baldintza berriak. Akordio batera iristen saiatu ziren. Azkenean auzi-ak epaitegian bukatu zuen. Abokatuek diotenez, epaia kontrakoa balitz, hamabost egunetan loka-la utzi beharra gerta li-teke. Aldekoa balitz, jabeak bederatz hamar urtetan ezingo luke lokalarekin nahi duena egin. Errandonea jaunaren asmoa etxea saltzea da. Honek kalte handia ekarriko lioke auzoari (ez dago zahar egoitzarik, ez beste biltokirik). Eta beste lokal bat bilatzeko aukera urria da: Sutegi-zar izango litzateke bat.

Bestalde, maiatzaren erdialde-

an, Santi Añorga, Saltxipiko nagusia tronbosiak jota eraman zuten eritetxera. Nahikoa larri hogei bat egun ingresatuta pasa ondoren, jadanik etxean da. Gaitzak gorputzaren erdia elbarritu dio, baina burua ongi dauka. Lehenbailehen senda dadila opa diogu.

KALEBERRI



**Ines
Kamino**

Asteazkene-tan merkatua egiten den apartekalekuan kotxeak ez uzteko adierazten duen kartela txikiegia dela eta ez dela ikusten aipatzen du, galdetu diogun, hamarretik bederatzik. Askok, ondokoa ere gaineratu digute: asteazkena jai gertatzen denean ez dutela jakiten azoka noiz izango den, astearte edo ostegunean.

Bestalde, badakizue, orain arte "Correos" izan dena, gaur egun NOAUA! aldizkariaren egoitza dela. Postetxe berria Gaztañazpin dago, txirrista ondoan. Lokal berri hauetara hurbildu gara eta bertako langileek esan digutenez, aldaketa

nabarmena izan da, nahiz eta lan funtzionamendua asko ez aldatu. Jendea etxe berriarekin harrিতa gelditzen omen da.

AGINAGA



**Iratxe
Begiristain**

Aginagako jubilatuek aukera paregabea dute uztailan aparteko eguna pasatzeko Bizkai aldean. Uztailaren 13an Getxora joateko asmoa dute Arrate egoitzakoek. Goizean San Felizismo bisitatu eta, ondoren, Getxora joango dira. Euskal Herriko paraje eder hauek ikusi nahi dituen jubilatuek betiko lekuetan eman beharko du izena.

Bestalde, hainbat denboran konponketa eta berritze lanetan izan diren Aginagako gasolindegia laister zabalik izango dituzue. Azkeneko lanak bukatu eta laister batean izango dira zabalik bi gasolindegia.

Honen aritik, Galardiko gasolindegian denda berri bat zabalduko dutela aipatu behar degu. Olio, jaki, edari eta horrelakoak saltzeko denda izango da, eta berehala izango du erabiltzaileak zerbitzu hau.



**LE MANS
ASEGURUAK**

PIKABEA AGENTZIA

- ▣ Isurrituak
- ▣ Autoak
- ▣ Etxeak
- ▣ Komertzioak
- ▣ Prezio onean
- ▣ Eskatu gure kontua konprometzurik gabe

Uzturre plaza, 8 LASARTE-CORIA 48137 41 18737 19 97

SUNBELTZ

TABERNA

Egunero Menu • Beldak

AGURBERROITAN
BERROZALBAI HERRIARIAN
1871 DANULDEBILDA

lejian

KALEZAR



**Pedro Mari
Matxain**

Astelehen
batean bi
kilotik gorako

bederatzi oilasko, buru eta lepo-
ak janda azaldu ziren Portalea
ondoko maldan, petxua eta
izterrak oso-osorik zituztela. Inork
ez zuen ordea zaratarik entzun,
ezta ezertxo ikusi ere.

Astearte goizean Pellejero jaiki
zanean, hor ikusten du Portale-
ko maldan, gure azeria bi guar-
daespaldaz eta guzti (bi hon-
tza), arkumeak harrapatu nahi-
rik.

Orduan Pellejero eta Ringok
pentsatzen dute rock kontzertua
prestatzea.

Goizeko 4.30etan hor azaltzen
da gure azeria ileak oso punk
jarrita bere belarritako, larruzko
txaketa, eta zazpi leguetako
botekin.

Hor hasten dira biak soinua
jotzen, Pellejero bateria eta
Ringok kitarra olinpikoa. Azeriak
ordea aurrenetik ez zuen kasu
haundirik egin nahi, nonbait
artean tripa hutsik izango zuen.
Baina geroxeago hurbildu omen
zen eta han hasi zen biribilketak
dantzatzen. Orduan Pellejero
eta Ringok musika piskat biziturik
piskana-piskana Puntapaxko

arkaitzetara eraman zuten, eta
han amildu zen 5.00tatik
7.00etara eta han irristatu eta
beheraino seko gelditu zen.
Orduan des-Pellejok etxera era-
man eta han dauka exposizio-
an.

URDAIAGA



**Leire
Atxega**

Auzo eta herri-
tarrak! Honez
gero jakingo
duzue Usurbilen

NOAUA! aldizkaria sortu berria
dugula. Herri aldizkari honetan
berri "prexko-prexkoak", punta-
puntakoak, jakiteko aukera ezin
hobea izango dugu. Dudarik
gabe horrelako zerbait falta zen
herrian. Ah, hori bai, korrika joan
"Correos" zaharreko lokalera eta
egin zaitez bazkide, aldizkariak
bertan baitu bere egoitza. Infor-
matuago bizi gaitzen beha-
rrezkoa dugu laguntza hau.

Hau dela eta, nire auzotar maite-
ei zera esan nahi diet: San Esteban-
go edozein berri badaukazue hur-
bildu zaitezte lotsik gabe neska gaz-
te honengana. Ikusten duzuen be-
zala, San Estebanek ere bere tar-
tea izango baitu aldizkarian.
Animatu eta egin zaitezte bazki-
de!

ZUBIETA



**Nere
Amenabar**

Zubietan ere
dagoeneko
hasiak dira ahalik
eta festa hobere-
nak prestatzeko lanean. Imanol

Zaldua, Zubietako Jai Batzor-
deko kide batek azaldu digu-
nez, duela aste pare bat bildu
zen Jai Batzordea, aurtengoz
lehen aldiz, festak antolatze-
ko gogoz.

Oraingoz, egitaraua urteroko-
aren antzekoa da. Berrikuntzak
aipatzekotan bi dira nagusi:
alde batetik, urtez urte zubietar
gazteek taberna gisa erabili
izan duten lokala ezin izango
dute erabili, alokatuta baitago.
Honela, txozna baten orde-
z bi egongo dira. Bestetik, galzilar
jatorriko Sestaoko dantza talde-
aren eskutik galzilar dantzak
izango ditugu ikusgai.

Orain arte sineztezina egin zai-
gun arren, bi udaletxeren
menpe egoteak badu bere
abantaila: diru laguntza eska-
tzeko Usurbil eta Donostia ditu-
gu. Era honetan, izugarrizko
jaiak prestatzeko adina diru
lortu ez arren, moldatzen omen
dira festa koskorak antolatze-
ko. Batzorde kideek argi dute fes-
tak kanpokoentzat baino gehia-
go bertakoentzat direla.



10. URTEMUGA
Uztailak 6 arte
%30 MERKEALDIA
zapatiletan

*Zapatak, Kanpinak,
Kreamilerak (poltsak,
zamarrak, galtzak...)*

Kale Nagusia, 2 - Tel.: 37 27 95



K/ Nagusia, 25
Tel.: 37 10 98



Antton Pagola

Ondo zegok ezta? Nik hala uste diat behintzat.

Usurbilen herriko notizien berri ez dugu izaten eta aldizkariak funtzio hori beteko duela uste dut. Gainera egunkarietan etortzen dena oso laburra izaten da.



Joxe Julian Borda

Nik ez dakit zer den NOAUA! aldizkaria, ez dut entzun ere egin.

Baina besteentzat ona bada niretzat txarra ez da izango, ona baizik. Irakurtzea beti komeni da eta herrian gertatutakoa bada are gehiago.



Arkaitz Izagirre

Ondo dago aldizkaria ateratzea. Honela jendeak irakurriko du eta gauza garrantzitsuak aterako dira.

**Usurbilen Noaua!
hamabostekaria
sortzeaz dago.
Zer deritzozu herrian
honelako aldizkari
bat
izateari?**



Arantzazu Aranburu

Oso ondo iruditzen zait honelako aldizkari bat ateratzea.

Usurbilgo zenbait herritarrentzat topagune bat izan daiteke eta hori oso garrantzitsua da, bai herritarrentzat bereziki eta baita entitate gisa ere.



Jon Ugartemendia

Niri oso ondo iruditzen zait honelako aldizkari bat izatea

Usurbilen. Herri mailako kultura gailentzea positiboa da, eta aldizkariak horretan lagunduko duela uste dut.




Itziar Undiano

Herri aldizkaria bada ondo iruditzen zait, piskat hemengo iritziak, notiziak

eta antzeko gauzen berri jakiteko. Gure herria nolakoa den jakiteko ere balioko du. Oso ondo iruditzen zait.

Ondo pasa!



PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42



**PINTXURAK
FERNANDO**

ONDO PASA!

**BIZKAIA 6
TU 36 62 10 36 34 22
LIZKURIE.**

Jaione Atxega



Aldizkaria ateratzea oso ideia ona delakoan nago. Inguruko informazioa herri guztian zehar zabalduko duen zerbait izango da, gauzen berri jakiteko modu egokia. Eta hori oso ondo iruditzen zait.

Iñigo Uribe



Ez nekien honelako aldizkari bat ateratzera zihorianik. Hala ere ondo dago. Honekin jendea herrian dagoenaz eta beste gauza askoz jabetuko da.

Jorge Aizpurua



Nik zer esango diat ba! Ondo. Jendeak irakurtzen badu ona izango da. Jendeak irakurri egin behar, horixe. Bestela herriko berri jakiteko egokia izango da.

Juan Ugarte



Beno, nik zer esango diat bada gauzak jakitea gustatu egiten zai-guk. Kalterik ez dik egingo behintzat., diru eske etortzen ez zareten bitartean... Esaerak hala esaten dik: "el saber no ocupa lugar".

Kontxi Irureta



Ez nekien uztailean ateratzekoa zenik aldizkaria. Ateratzekoa zela banekien, baina ez nuen uste horren azkar aterako zenik. Nire ustez interesa sortuko duen zerbait izango da, denetik jartzen bada behintzat. Denetarik zerbait jarri beharko du.

Juan Mari Ezkurdia



Ondo. Nik asko irakurtzen ez badut ere irakurtzeko ondo etorriko da eta batez ere, herrian gertatzen denaren berri jakiteko.

Elena Martiartu



Ondo. Ondo iruditzen zait honelako aldizkaria sortzea. Honen bidez Usurbilgo berri gehiago jakingo ditugu eta horregatik beharrezkoa ikusten dut halako aldizkari bat sortzea.

Haur jantziak

Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 36 5943

Santixabelak ondo pasa!

FURRUT

TABERNA

San Esteban kalea, 1 Usurbil Tlf 36 00 80

Festa onak igaro

AIZPURUA

OKINDEGIA

KALE NAUSIA, 25

TEL. 36 12 06

USURBIL

Ondo pasa!

Ikastolarako materiala

K/ Etxebeste, 1 USURBIL

Tel.: 36 11 15 (Gipuzkoa)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

Santixabelak ondo pasa!

20170
USURBIL

USURBILGO JAI BATZORDEAREN AGURRA:

Kaixo guztioi:

Berrero ere aurtengo Santixabel jaiak ospatuko ditugu eta Jai



Argazkia: Juan Luis Izeba

Batzorde honen asmoa da zuen gustoko festak izatea, horretan ihardun baikara buru-belarri. Alaitasunez eta patxadan ospatu ditzagun gure herriko festak, eta usurbildarrok, festetan ere, izan dezagula arreta gureak diren festak euskaraz bizitzeko, benetako euskaldunak garela geuron buruei azaltzeko. Ilusioa eta adorea ez

zaigu falta! Zorionak denoi eta Santixabel agurrik beroena festak gurekin ospatuko dituzuen guztioi, bertako nahiz kanpoko.

**GORA USURBIL!
GORA SANTIXABEL!**

Oharra: alkohola saltzen den lekuetan kontuz alkoholarekin, batez ere, 18 urtetik beherakoe-kin, nahiz eta gurasoak diren arduradun nagusienak.

NOAUA! KULTUR ELKARTEAREN AGURRA:

Ba omen datoz Santixabelak!

Arraioa! Aurtengoak ere uste baino lehenago etorri dira. Eta berrikuntzak izango diren usaina ere zabaldu da. Ea denon gustokoak diren...

Hala ere nobedadetarako NOAUA! herriko aldizkari hauxe. Aldizkariaren sostengurako ere Kultur Elkartek bat sortu da. Jaiak ere kultura omen dira eta guk ezin huts egingo dugu.

NOAUA!-ko argazkilariak eta

kazetariak edozein txokotan topatuko dituzu, beraz argi ibili kalimotxoarekin. Santixabel hauetako gora-beheren berri zorrotz izango dugu hurrengo alean. Ondorengoan berriz, Santiotakoak, Sanxtebanetakoak eta jaietakoak ez izan arren interesgarriak diren berri guztiak.

Hau izango da gure leloa, Usurbilgo berriak usurbildarrentzat. Egia esan usurbildarrok ez gara inoiz makalak izan albiste eta notiziak

sortzen, batzuren ustez, gehitxo ere bai. Gu txukun antzera papereratu eta zabalitzeko iaiozte saioa egiteko prest gaude.

Bitartean, Santixabeletan bereziki eskaini zaigun maskotaren azpian fandangoren bat dantzatzen (bereziki esker-tzeko modukoa baita) edo txozna-ertzen batean elkar ikusiko dugu.

Santixabel epel baino jai alai egingo ditugulakoan, ONDO PASA!

ALKOBATA
H I A R T Z U N

Elkarte

Balea eta Argazkia

ZORIONAKI

J A Z O R O N T S U A K O P A D Z K Z

H I A J A N A K
O N D O P A S A !

U s u r b i l

t e l 9 3 6 1 4 8 7

o f a r t z u n

**TABERNA
JATETXEA**



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

TARATXUN TXARANGA BERRIA KALEAN

Taratxun txarangaren doinuek berriro alaituko dituzte Usurbilgo kaleak. Hamar urte pasa dira talde hau desagertu zenetik. Aurten ordea, gazte talde batek txaranga bat sortzeko asmoa zuela eta, txaranga zaharrean jotzen zuten usurbildarrei deitzea pentsatu zuten. Baiezkoa eman zuten gehienek, eta ordudanik entsaiatzen aritu dira astero festa hauetan kalera irteteko. Taratxun txaranga berri honek

azpeitiar eta azkoitiar musikari batzuren laguntza ere jasoko du. Dantza eta giroa behintzat ez da faltako aurten jaietan.



argazkia: J.L. Izeta

argazkia: Juan Luis Izeta

BURUHANDI BERRIAK

Ezuste ederra hartuko dute haurrek buruhandi berriak beraien atzetik segika ikusten dituztenean. Zaharrak urte batzuk badituztela eta,

"erretiroaren" garaia iritsi zaiela erabaki du udalak. Buruhandi eta erraldoi hauek 2 hamarkada baino gehiago dituzte, izan ere, azken hauei duela 20 bat urte egin zitzaizkien arropa berriak. Ordurako urte batzuk eginak zituzten herrian. Udaletxeko garbiketaz arduratzen zen Inaxio Imaz arduratzen zen erraldoiak jazteaz. Felix Aizpuruak berriz, buruhandi eta gainontzeko erosketetez arduratzen zen, eta Kalparsoro alkatea ere txukuntze lanetan ibilia omen da. Honelako atentzioekin harritzekoa da gehiago iraun ez izana. Ea berriak ere horrenbeste denboraz izaten ditugun gure artean!

ZINEGOTZIEN OHOREZKO DANTZA

Santxabel egunean plaza beteko duen ekitaldia ikusteko aukera izango dugu. Arrazoa? Dantzari talde "berezi" batek Soka Dantza eskainiko baitu. Oraingo honetan udaletxeko zinegotziek paper kontuak albo batetara utzi dituzte alpargatak jantzi eta hankei hautsak asintzeko. Badu ordea

beste berezitasunik dantza honek, izan ere, badira 32 urte ez dela dantzatzen ohorezko dantza hau. Dantzari koadrila Markel Olaizola, Agustin Lizaso, Jose Luis Arrastoa, Xabier Pikabea, Kerman Errekondo, Karmele Heivia, Izaskun Maiz eta Jose Antonio Altunak osatzen dute. Maisu lanetan ibili direnak berriz, Iñaki eta Arantxa Urkia izan dira.

Arantxak esan digunez, "orain arte udaletxeak ez du ezer egin festetan, eta bazen garaia, nik proposamena egin nien eta aurrera atera da".



argazkia: Juan Luis Izeta

Jaiegunetan irekita
erosketak etxera ere eramaten dira

Santuenea, 22


Telefonoa: 32 62 58

Nº1
Ilcapaindegia
MISTOIA

Aritzeta 2 n° 2 1ª
Telefonoa: 36 19 51







Argazkiak: Joxean eta
Iñaki Labaien

OILASKO BILTZAILEAK BELAUNALDIZ-BELAUNALDI



Juan Luis Izala

Usurbilen aspalditik ezagutzen da oilasko biltzaileen eguna. Baina beti ez da era berean egin. Gaur egungoa eta duela 50 urtekoaren artean desberdintasun batzuk badaude. Eta hori argi ikusi dugu San Estebango Berritza Barrena baserriko Mujikatarrekin hitz egin ondoren.

Orokorrean, oilasko biltzaileen zeregina berdina izan da beti: goizeko 6etan atera eta baserriko oilaskoak biltzen joatea. Baina, noski, horren truke dantza pixka bat eginez. Julio Mujikak lehen, buelta txikiagoa ematen zela dio: "San Esteban eta Aginagara besterik ez ginen joaten, eta kalekoak ere ez ziren San Estebanera etortzen. Orain, berriz, San Estebanetan eta Santixabeletan, bietan etortzen dira". Ikerren ustez, horren arrazoia da orain jende gehiago ibiltzen dela. "Horregatik bi taldetan banatu eta bi buelta desberdin egiten ditugu: bata Arratzain aldera eta bestea San Estebanera".

Egia esan, jende gehiago ibiltzen da orain, neskek ere tarte-

an izaten baitira. Baina lehen ez. "Ez, ez, neskek ez ziren ateratzen. Soka dantzan bai, baina oilasko biltzen ez" baieztatzen du Juliok. "Eta afaltzen ere mutilak bakarrik izaten ginen".

Trikilariak eta bertsolariak lagun dituztela ibiltzen dira orain lehen bezelaxe. "Baina orain oilasko gutxi biltzen dugu. Jendeak dirua ematen du gehienbat" dio Ikerrek. Joxe Manuelek, berriz "lehen oilaskoak ematen zituzten" gogoratzen du, "edo bestela konejuak edo ahateak ere bai".

Arropa berezirik ere ez omen zuten orduan. "Ez ginen mahoiko galtzak eta alkandora txuria jantzita ateratzen. Bero haundia egiten zuen eta mauka motzetan askotan".

Goiz guztia baserriko baserri ibili ondoren, iluntzeko afariaren poxa geratzen da, bai orain eta baita lehen ere. "San Estebango plazan bukatzen genuen buelta" dio Juliok. "Plaza erdian zuloa egiten genuen, ohol bat jarri zuloa

eginda, azpian oilaskoak jarri buruak gora aterata eta karteroak ttuntuna jo bitartean, matxetearekin lepoa moztzen genien". Ondoren Txokoaldeko Ximonenean prestatu eta afaltzera hara joaten ziren.

"Orain harategira eramaten dira lumatzera eta beste egun batean afaltzeko aprobetxatzen dira" Ikerrek esandakoaren arabera. Beraz, jan gabe ez ziren gelditzen ez lehen eta ezta orain ere.

Hala ere, iazko Santixabel fes-



Juan Luis Izala

tetan Berritza Barrena baserriko oilasko biltzaileak kotxez joan zirela esan digute. Ez al da benetan lotsagarria? Merezki ote du horrela etortzen direnei oilaskoak ematea?

Badaezpada, aurtengo oilasko biltzaileei txukun-txukun prestatzen saiatu eta itxura antzera eta "pulamentuz" agertzea eskatuko nieke. Eta esan beharrik ez dago, oinez noski.

BILBAO
ASEGURUAK

Ramon M^a Lili, 4
Tlf 27 06 22
DONOSTIA

Kotxe, istripu,
bizitza aseguruak
eta kreditu
hipotekarioak ...

Andoni Olazabal Etxeberria-Berreiarza

ZORIONA K ETA SANTIXABELAK
ON DO PASA

PATRI
JATETXEA

Eguneko bazkariak, afariak

Magistera
Tlf 810 27 24

20 20 Uztailak
(Etorrikoak)

PELLO

Ondo pasa jatoki!

Arizena, Kaltetza

Tlf 810 27 07

USURBIL

Jaiak ganean ditugu, baina bada kanpoan bizi den herritarrik ere. Batzuk duela urte asko alde egin zuten Usurbildik. Beste batzuk ez dira joan zaharrak. Guztiei, nahiz eta munduko bazter desberdinetan egon, galdera bera egin diegu: nola bizi dituzue Santixabelak kanpoan? Zer duzue gogoan? Hauek, Felix, Luixa Pello, Imanol, Inaxio, Ixabel eta Patxi kontatutakoak.



Inaxio Zubeldia

Bai, bai, gogoratzen naiz herriko jaietz. Batez ere parrandez, herriko giroaz, ... hemen ez dago horrelako saltsik, oso ezberdina da, eta herria beti da herri. Nahiz eta kilometro batzuk egon tarteko, saiatzen naiz ospatu beharrekoak ospatzen: txakolin botella bat ireki, ardo bereziren bat, ... data aipagarrietan hori behintzat ez da galtzen."


(HOLANDA/HAULERWYK)



Luixa "Pello" Aranburu

Gogoratzen naiz bai, Santixabeletaz. Nahiz eta urte asko egon kanpoan ez dira data hauek ahazten. Batez ere meza nagusiaz, dantzarietz, bertsolarietz eta pelotaz gogoratzen naiz. Nire garaian ere dantzari nahikoa abila nintzen, Aranburutarra. Hala ere, tarteka azaltzen naiz, eta gauzak aldatu egin direla iruditzen zait: jende gehiago dago, lehen kaleko jendeak gehiago ezagutzen genuen elkar, edozein momentutan kantatzen hasten ginen, ... nahiago dut gure garaiko giroa."

(FRANTZIA/PARIS)



Ixabel Pagola

Egia esan, mendi aldean nagoenean gehiago gogoratzen naiz. Hasieran, hona etorri nintzenean, askoz ere gehiago gogoratzen nintzen. Gaur egun ordea, ez naiz hain melankoniatsu. Hemen bestela ere izaten dira nahikoa festa. Horren faltarik behintzat ez dugu. Gainera, hemengo beharra ikusita ez pentsa jaiak gogora etortzen zaizkigunik. Beste lan bat egitera etorri naiz eta horretan dihardut. Baina bai, tarteka gogoratzen naiz."

(BRASIL)

Imanol Zubeldia



Hori ez duk sekula ahazten. Asko gogoratzen naiz eta ez Santixabeletan bakarrik, urte osoan. Oilasko biltzaileekin asko gogoratzen naiz, gau pasak, ... eta goizeko zezenak. Hau, gau pasak egiteko aitzakia izaten zen. Usurbil berezia da, eta kanpoan denboraldi baten ondoren gehiago konturatzaren zara. Herri mina beti dago hor."

(BARTZELONA)

Patxi Añorga



Nola ez ba! Halabeharrez kanpoan gaudenok, espetxean, herbestean edo ezkutuan eguneroko gogoratzen gara herriaz. Gauza askoz oroitzen naiz: herritarren arteko giroa, familiarbakteria, alaba zaldiko-maldikora eramatea, errepresaliatuen aldeko txoznako txanda ... Ez nuke bukatu nahi usurbildarro eta bereziki borrokalariei Santixabel onak opa gabe. Elkarrekin egongo garen egunaren zain, egin topa gu guztion partez.

(ESPAINIA/ALCALA DE HENARES)

Felix Aranzadi



Santixabelak edo eta San Praixkuak iristen direnean gogoratuko ez naiz ba? Batez ere pelota partiduak: Lastaolakok, Antonimaminekoak, Axintxionekoak eta parte hartzen zuten lehen. Sokatirak ere ikaragarriak izaten ziren. Giroa, primerakoa. Egia esan, oso txikitik aldegin nuen Aginagatik. Andrearekin joan izan naizenean dantza saio ederrak ere egin izan ditut."

(PUERTO RICO/CAGUAS)



ONDORASA
JAIAK



BAZKARIAK
ETA AFARIAK

Santu-enea 23
Tlf 36 27 34



MAHUKA
GAZTE DEN DA

ZORIONAK USURBILDAR GUZTIEI
ONDORIGARO FESTAKI

ERREKASTA 2 11 03 06 USURBIL

Denboraren lepotarra

NOAUA! TXAMUTOTIK GREZIARA MARKESANEKO PETRILETIK



argazkia: Udal arkiboa

erabileran. Izan ere behin Txaramutoko petrilean eserita zegoela han azaltzen da Zubietako apaiza, Don Francisco. "Ezkerra" ez zen isilik gelditzen zen horietakoa eta honela

eta usurbildarrik ba ote zegoen jakitea ezik? Pentsatu eta egin. Bapatean noaua oihukatzen du Atenaseko kaleetan. Honelaxe ezagutu zuten greziarrek noaua hitza. Baina istorio hau ez da hor bukatzen. Halaberharrez desfile hartan baitzen usurbildar bat, Luis Udabe hain zuzen ere. Eta honek noaua! entzun zuenean buruari bira eman eta han ikusi omen zuen Periko kon-

Noaua! ondo hitz ezaguna dugu usurbildarren artean. Nori ez diogu noaua oihukatu noiz edo noiz kalean goazenean. Jadanik Usurbilgo hitz bereizgarritzat har dezakegu gure herriko hizkeran, betirako sustraitua geldituko den zer bait.

Aspalditik dator kalean goazenean edonori noaua! esateko ohitura. Ramon Urkia, "Ezkerra" k ere izan zuen zerikusirik hitz honen

esan omen zion: "noaua Don Francisco!" Apaizari hura gustatu ez eta udal-txetik bueltan Ezkerrarengana hurbildu eta esaten dio: "que sea la última vez". Baina "Ezkerrak" kasu handirik egin gabe martxa. Handik aurrera petrilean eseri eta pasatzen zen edonori esaten omen zion noaua!



argazkia: J.L. Izeta

dea. Ondoren hizketan aritu omen ziren.



argazkia: Luis Udabe

Grezia aldera ere iritsi zen noauaren oihartzuna. 1962a zen, Atenasen Juan Carlos I eta Sofiaren ezkontza. Milaka soldadu desfilean eta beste hainbat gonbidatu. Gonbidatuen artean zen Periko kondea, printzearen eskola laguna eta Usurbilen gizon ezaguna. Kalean Espainiar marinako konpania desfilatzen ari zela zer bururatuko Perikori

Goardia Zibilek ere badute noauaren berri. Hauek behin eta berriz pasatzen ziren euren motoekin batera eta bestera. Bienbitartean Julian Borda eta bere kideak Markesaneko petrila berotuz noaua esaten omen zieten berdekoei. Egun batean hauetako bat gelditu eta honelaxe esan zion: "no os quiero oir más decir ni agua".

PORRULARRUME

HERNANDETA BARRIOALTEZ-ERRE

Kale nagusia,2
Tlf. denda: 36 46 37 etxea: 36 52 99

XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

"Festa onak pasa"

SANTIXABELAK ONDO PASA!

KIROL KOPLA



"Potto"

Santixabelak Sgainean ditugu. Utzi kirol pres-taketak, dietak

eta ekin jaiari. Ez dago jaietan izerdia ateratzea baino gauza hoberik. Hala ere bakoitzari berea. Urtean zehar izerdiz blai ibili diren kirolariek ere merezi baitute hitzik.

Hasteko zorionik beroenak **Andoni Aizpuruari**. Herriko judokak indartsu dabiltzala, bai horixe. Galdetu bestela Andoniri. Inork ezin izan zion aurre egin Valentzian berriki egin den Espainiako txapelketan. Aurkariak beldurtu, giltzen bat egin eta urrezko domina lepotik zintzilik.

Judoan ez baina sanboan lorpen politak egin dituen beste kirolaria, **Aiora Arrozpide** dugu. Ez da denbora asko igaro Europako sanbo txapelketan bigarren eta unibertsitate mailako txapelketan hirugarren egin zuenetik. Doazkio hemendik zorion agur gozoenak.

Txirringarritza ere albiste pozgarriekin dator. **Jon Carbayeda** espainiako txapelketan 53. postua egin berria da eta **Haimar** eta **Joseba Zubeldia** puntaren puntan dabilza.

Bueno badakit beste kirolari nahiz kirol asko utzi ditudala, baina hurrengorako zerbait utzi behar. Ez galdu itxaropenik eta gogoz ekin kirolari.



"RINGO" MUNDUKO 15. ONENA

Juan Inaxio Unanue, "Ringo" jezizenaz ezagunagoa, bere eskopeta hartu eta nazioarte mailako txapelketetan dabil burubelarri platerak hautsiz.

Sukaldean platerak puskatzen ez dakigu baina eskopetaz hausten iaioa da "Ringo". Aurten Espainiako Kopa eta Espainiako Txapelketa Orokorra irabazi ostean, duela hiru aste Alemanian Munduko Kopan parte hartu zuen 46 naziotako bizpahiru partaideekin batera. Munduko txoko guztietako tiratzaile onenekin lehian 15. postua eskuratu zuen azkenean. Berak esan bezala, "ez zen erraza izan". Maila oso altua zegoen, Atlantako Olinpiadarako prestatuta dagoen jendea baitzegoen han. Hala ere hobeto egin neza-keelakoan nago, urduritasuna etsai gogorra izan nuen".

"Ringo"k 20 urte daramatza plater tiraketaren munduan, "Kalezahar eta Usurbilen egiten ziren tiradetan hasi eta piskanaka-piskanaka gorantz joan naiz". Hala ere urteetan aurrera egin ahala erreflexuak galtzen direla ere gaineratzen du, nahiz eta galera hori kontzentrazio maila handiagoz bete.

Ibiliaren ibiliz, Espainiako errekorra berdintzea lortu du aurten. Honela, 150 plateretatik 148 hautsi zituen Leioan egin zen Espainiako Kopan. Munduko errekorra berdintzeko, beraz, bi hutsegiteak konpondu beharko ditu, italiar batek Munduko txapelketan ezarri baitzuen errekor berria, 150etik 150. Momentu honetan Estonian egongo da "Ringo", Europako Txapelketa jokatzeko, sei aurrenekoetan sailkatzeko itxaropena zuen abiatu aurretik. Zorte on!



Z I N K

ANCORRA

Barraza eta Lantegiak

ZORIONAKI

Krate Nagusia's
USURBIL

III 430 434 136
20 10



Santixabel
zoriontsuak
denoi

Ileapaindegia

Porrusalda

Enplegu Sustapeneko Zentroak antolatuta-ko disenu eta pintura txapelketan Igor Oreja eta Ander Marsók eskuratu zuten lehenengo saria. Bigarrena Asier Trancón eta Antonio Galánek, eta hirugarrena Jose Luis Parra eta Josean Urkiazuk.

Usurbilgo Sebastián De La Fuente Eroskik erosi du duela gutxi. Aldaketa honen ondorioz bertako langileen etorkizuna kolokan dago. Azken aldi honetan, orain arte bertako langile izan direnak eta jabe berriak negoziatzen ari dira.



Andatza KKEk txirritandaz mendi irteera antolatu du uztailaren 13-14rako. Ibilbidea Peñaloscintosen abiatuko da, Laguna Negratik gora Picos De Urbionera joateko. Interesatuak uztailaren 10ean Andatza KKEren lokalean bilduko dira zortzietan.

Urteroko legez Ziortza Gazte Elkartek kanpamentua antolatu du Sierra de Camerosen. Lehenengo txandako gazteak uztailaren 9an aterako dira udaletxe aurretik goizeko 9etan. Bigarrenekoak berriz, uztailaren 18an ordu eta leku beretik.

Herria eta umorea elkarrekin izan dira azken aldi honetan Paulino, Mikel eta Unai izan dira Txiskolan Usurbilgo ordezkari eta a zer paotxa izan duten: Santo Domingorako bidairekin nahikoa ez eta bi milioien jabe egin dira. Zorionak.

Eusko Trenera ere iritsi da uda. Urtero bezala tren zerbitzuetan aldaketak izan dira. Trenen maiztasuna mantentzen bada ere, orduak aldatu dira. Adibidez:

8:50eko trena 9:07an izango da, eta 9:20koa 9:27an. Horrela orduero.

Kontseju txikia

Udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzuaren arautegian aldaketak eman berri dira.

Ongizate eta Osasun batzordeak proposaturik, udal batzak, aho batez onartu zuen araudia aldatzeko proposamena. Horrela, zerbitzu hau eskuratzeko aukera jende

gehiagok izango du hemendik aurrera.

Batetik, familiaren unitate kontzeptua aldatu egiten da. Orain laguntza behar dutenen mantenuaz arduratzen diren pertsona guztiek egin ahal izango dute eskaera. Horrekin batera, alde ekonomikoa

xamurtu egiten da, izan ere, gutxiago ordaindu beharko da laguntza hau. Horrela, jende gehiagok izango du zerbitzu hau eskuratzeko posibilitatea.

Aldaketa hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

LURDES FRUTAK



FRUTA BEREZIAK
ETA
KONGELA TUA

Bizkarr e kalea, 3
Tel.: 37 23 68

OHARRA Irailar en 1-etik 15-era itxita egongo da.



USURBILGO MUSIKA ESKOLA

Joan den ekainaren 21ean Zumarte Usurbilgo Musika Eskolaren ikasturte bukaerako kontzertua egin zen Salbador Parrokian. Urte osoan zehar eginiko

lanaren adierazgarri, kontzertu ederra eskaini zuten, Zumarteko ikasleek. Binaka, hiruak nahiz taldeka egin zituzten saioetan musika tresna ezberdinez jotako abestiak entzuteko aukera polita izan zuten bertan bildutakoek.

Denetara 19 pieza, euskal kantak, herri-



koiak, konpositore ezagun nahiz ezezagunak... guztiak, kitarra, bibolin, piano, txistu, xilofono eta beste hainbat musika tresnen bidez aurkeztuak.

Musika mintzaira 3-4. mailakoek ekin zioten kontzertuari. Ondoren Zumarte eskusoinu taldeak bi kantu eskaini eta txandaka txandaka usurbildar musikari gazteek musika tresnak menperatzeko duten gaitasuna erakutsi zuten, bertan bildutako jendearen txalo hotsez lagunduta. Amaieran Zumarteko orkestrak bost abestiko saioa eskaini zuen han bildutako jendearen gozamenerako.



Aurtengo udan ere etxeko txikienek non ibilia izango dute. Uztaila osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu dira. Bi txandatan, haurrei eskalatzeko, mendi


bizikletan ibiltzeko eta beste hainbat jardueratan parte hartzeko aukera emango zaie.

Lehenengo txanda uztailaren 3tik 15era luzatuko da. Eta bigarrena uztailaren 16tik 29ra. Txanda bakoitzean bi ordutegi ezberdin izango dira: 6,7 eta 8. mailakoentzat goizeko 9etatik 11etara. Eta 3,4 eta 5. mailakoentzat 11etatik 13etara.

Jarduera nagusiak eskalada, orienting eta mendi bizikleta izango dira. Hauen inguruko oinarrizko nozio batzuk erakusteaz gain, rapelatzeko teknikak ere erakutsiko zaizkie partaideei.

Hauetzaz gain, beste ekintza mordo bat ere egingo dituzte: hala nola, joku tradizionalak eta berriak, badmintona, beisbola, futbola, sas-kibaloia, pelota, boleibola, igeriketa...

Ekintza gehienak Usurbil eta bertako auzo-



etan egiten dira. Horrela, inguruko auzo, txoko eta bazterrak ezagutzeko aukera egokia izaten dute haurrek. Zenbait egunetan, egun pasa egitera ere ateratzen dira inguruko herrietara.

Izen emateko Oiardo kiroldegira deitu beharko da, edo bestela uztailaren 3an, lehenengo egunean, bertara azaldu.



**ARRANDEGIA
MIKEL**

Gaztañazpi, 1 - Tel.: 36 63 56
USURBIL



ORDO PARAI



SEKANA

BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

Aginaga, tlf: 36 27 73



EKAINAK 29

-Muskindiko maskarada. Eguerdiko 12.00etan ongietorria eta barrikadak. Arratsaldeko 5.00etan ikuskizuna.

-Arratsaldeko 4.00retan Judo txapelketa.

EKAINAK 30

-Txistularien topaketa. Goizeko 9.00etan esnadaia herrian zehar. Eguerdiko 12.30etan kontzertua frontoian Oiartzun, Orereta eta Usurbilgo txistularien eskutik.

-Aste guztian zehar Mihixe pintura taldeak antolatutako erakusketak izango da.

UZTAILAK 3

-Umeen eguna. Arratsaldeko 16.00retan

Sebastopoleko titiriteroen ekitaldia.

-Igel jokoaren VI. Santixabel saria "Gure Pakea" zahar egoitzak antolatuta.

UZTAILAK 4

-Relax eguna. Iluntze aldera kafea eta AEK-k antolatu duen "Emakumeen asanblada" antzerkia dema plazan.

UZTAILAK 5

-Oilasko biltzaileen eguna. Goizeko 5.30etan txokolatea eta bizkotxoak banatuko dira. Seietan oilasko biltzaileen irteera.

UZTAILAK 6

-Preso eta errefuxiatuen eguna. Goizaldeko ordu batean omenaldia

eskeiniko zaie preso eta errefuxiatuei. Ondoren, kalejira.

UZTAILAK 7

-Zaharren eguna. Arratsaldeko seietan harrijasotzaileak eta idi dema izango ditugu dema plazan.

UZTAILAK 13

-Bideo emanaldia: "India-Kachemira-Khun". Hizlaria: Susi Elozegi. Gaueko 10.00etan Udarregi Zaharrean.

-Etumeta euskaltegian udako eta barnetehietako matrikula egiteko epea ireki egiten da.

-Aginagako 3.adineko jendearentzat Getxora irtenaldia. San Felizisimo eta herria bixitatuko dituzte.



TABERNA

Pintxo bereziak eta giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



JANTZIAK

Santixabelak ondo pasa!

Atxega-alde, 18
Tel:37 34 81

KIROLAK - JOSTAILUAK

Lourdes

GAZTANAZPI, 1
Tel: 37 03 90

Usurbil

Santixabelak ondo pasa!

ERREKONDO EGUR ZERRA

eraikuntzarako tabloi lehorrak bertako egurrean

Zubieta 362237

Festa zoriontsuak pasa

Eguzkitza



Erropa

- Emaztegaiak! Ezkontzako soineko bat salduko nuke. Oso-oso ederra. Marfil kolorekoa, mauka motza, T/40. Oinetakoak, belo motza eta eskularruak oparitzen ditut. Gutxi gora-behera 1,75eko altuera, 5zmtako takoiekin. Tel. 36 45 84 eta 36 32 59, 13:00etik aurrera. Ana.

Bizikletak

- Bi urtetik laura bitarteko ume batentzako bizikleta salgai. Berria 6.000 pezeta. Tel. 36 61 31 (bazkalorduan edo gauean deitu)

Etxetresna elektrikoak

- Salgai 1,70 metroko altuera duen Corberó frigorifiko bat, bi ateduna. Ondo zaindua. 25.000 pezeta. Tel. 36 34 54.
- Aire beroko lehorgailu bat salduko nuke. Erabili gabea. Erropa litzazeko pronto uzten du. 30.000 pezeta. Tel. 36 19 61 (deitu 13:00etik 18:00tara).

- Su bakarreko plantxa elektriko bat salgai, ia berria, prezioa erabakitzeke. Tel. 36 56 96

Informatika

- Hiru Nintendo joku salgai: Shadow, Warrior eta Tortugas Ninja II. Tel. 37 33 57.

Musika

- Bandurria bat salgai daukat, oso egoera onean dago. 10.000 pezeta. Tel. 37 01 66

Automobilak

- ALFA ROMEO 164 TS auto bat salgai. Osagarriekin. 1.100.000 pezeta. Tel 36 17 09

Motoak

- NS 1 HONDA moto bat salgai. SS-AN. Hobe ezina. Kolore politekoa. Tel. 37 06 03

LANPOSTUAK

- Administrari bat. Errenteriako Udala. Eskarretarako epea: 96-07-03. Oinarriak: 1996ko ekainak 13ko G.A.O.
- Hurtzain bat. Errenteriako Udala. Eskarretarako epea: 96-07-03. Oinarriak: 1996-06-13ko G.A.O.
- Administrari laguntzaile bat. Errenteriako Udala. Eskarretarako epea: 96-07-03. Oinarriak: 96-06-13ko G.A.O.
- Igeltsero ofizial bat. Errenteriako Udala. Eskarretarako epea? 96-07-03. Oinarriak: 96-06-13ko G.A.O.
- Aldi baterako gizarte-laguntzaile bat. Lasarte-Oriako Udala. Eskarretarako epea: 96-7-4. Oinarriak: 96-6-14ko G.A.O.

Norbaitek oinarriak nahi balitu, Noaui! hamabostekariaren egoitzan (Kale Nagusia, 27) edo Udaletxean eskura ditzake.

Santixabelak ondo pasa!

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3 Tel. 37 16 85

GALARRAGA GARRAIOAK

- LUR ONGARRIAK
- ZABOR BILKETA
- ZISTERNA BEREZIAK

TLF: 37 01 46

Ondo pasa Santixabelak!

ETXEBESTE
JA TETXEA


Aginaga (Usurbil) Tel.: 36 27 40

Lehiaketa

Honen zain zeundeten, ezta? Bai, NOAUA!-k ere bere lehiaketa badu. Ikusi makusi, zer ikusi? Maskota ikusi. Bai, maskota ikusi bai, baina zenbatgarrena da aur-

tengoa? Eta nola du izena? Erantzuna baldin badakizu, idatziezaguzu NOAUA! aldizkariara, Kale Nagusia 27, 20170 Usurbil, postaz edo zuzenean

gure buzoira botaz. Asmatzaille guztien artean Antxeta jatetxean bi pertsonentzat afari goxoa zozketa-tuko da.



argazkia: Jakoba

1994ko maskota



argazkia: Jakoba

1993ko maskota



1996ko maskota



irakli: Udabe



TXIRIBOGA
TARONAK
 pintxoak eta
 bokatak

Sanixabelak
ONDORRUA!

Irazu,3 - Telf. 37 00 13 - USURBIL

Urtinea
Etkantea
 L E E T L E
 L N E K

N S
S NTIX EL K

San Esteban auzoa
 Tlf 36 22 55
 20170 USURBIL



USURBILGO
EUSKO ALKARTASUNA
ZORIONAK!

ZORIONAK

iu EZKER
BATUA

Usurbilgo

**HERRI
BATASUNA**



**EUSKALDUNEN BATASUNA
LANGILEEN BATASUNA**



Usurbilgo EAJ-PNV-k Santixabel jaiak festa-giro bero eta alai batean igarotzea opa die herritar guztiei.

ZORIONAK!

OIARDO
UDAL KIROLDEGIA



USURBIL
TLF.: 37 24 98

HARPIDE TXARTELA

5.000 pezeta urte osorako

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____





GUZTI HAUEK BAT EGIN DUTE

Noaia!

KULTUR ELKARTEAREKIN ETA

ALDIZKARIAREKIN.

ZURETZAT ERE BADAGO TOKIRIK

ARGAZKI HONETAN.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!!